

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA**Hirigintza eta Garapen Iraunkorreko Arloa***Iragarkia*

2020ko ekainaren 2an, alkate-udalburuak 507. zenbakiko Ebazpena eman zuen, zeinak honela dioen:

1. 8.3.05. Mendipe eremuko egikaritze unitateko urbanizazio proiektua behin betiko onartzea, eranskinak ezartzen dituen baldintzetan.

2. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Aukeran, berraztertze errekurtsua jarri ahalko da beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, hila-betean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da ebazpena, Euskal Autonomia Erki-degoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahalko da.

Epe horiek Alarma egoera luzatzeko maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak epe administratibo eta prozesalak berriro hasteari dagokionez zehazten dituen datetan hasiko dira.

ERANSKINA

1. Lanak egiten hasi aurretik, abal hauek jarri beharko dira:

– 94.876,92 €, urbanizazio lanak behar bezala egiten direla bermatzeko [1.581.282,10 euroren (1. faseko kontrata aurrekontuaren) % 6 -1.340.069,58 euroren (egikaritze materiale-rako aurrekontuaren) % 18ko igoera-). Urbanizazio lanak hartzean itzuliko da.

– 26.380,20 € (21.983,50 euroren % 120), eraikuntza eta eraisketa lanetan sortzen diren hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko. Lanak bukatutakoan itzuliko da. Horretarako, hondakinen Kudeaketari buruzko amaierako txostena eta lanak egiterakoan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direlako egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren 112/2012 eta 407/2013 dekretuekin bat etorriz; horrela, dagokion elkargo ofizialak edo berariaz akreditatutako erakundeak txostena egiaztatu beharko du, salbu eta lur kutsatuen esparruan ziurtagiria duen entitate batek egiten badu txostena.

– 30.000 €, lanek eremuaren barnean eta kanpoan ukitzen dituzten bide, ondasun eta zerbitzu publikoak behar bezala mantentzen direla bermatzeko. Urbanizazio lanak hartzean itzuliko da.

– 77.417,12 €, lorezaintzarako aurrekontu saileko zenbateko bera, zuhaitzak landatzeko eta ingurumena eta paisaia leheneratzeko baldintzak betetzen direla bermatzeko. Jarduketara integratuko bukaerako zuhaitz defizita konpentsatzeko eginbeharra betetzea ere bermatuko du zenbateko horrek; alegia, zuhaitzak lurraldeko beste lekuren batean landatzeko edo, bestela, dagokion kalte-ordaina ordaintzeko betebeharra. Alde horretatik, zuhaitzak landatzeko garaian/unean, Udalak erabakiko du zer lur edo lekutan bete beharko diren zuhaitzak landatzeko eginbeharra.

AYUNTAMIENTO DE IRUN**Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible***Anuncio*

Con fecha 2/6/2020 por la Alcaldía Presidencia, se ha dictado la siguiente Resolución n.º 507:

1.º Aprobar definitivamente el Proyecto de Urbanización de la Unidad de ejecución del ámbito 8.3.05 Mendipe con sujeción a las condiciones recogidas en anexo adjunto.

2.º La presente resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Estos plazos serán computados desde las fechas de restauración de los plazos administrativos y procesales determinados en el Real Decreto 537/2020, de 22 de mayo, por el que se proroga el Estado de Alarma.

ANEXO

1. Se deberán depositar los siguientes avales de forma previa al inicio de las obras:

– 94.876,92 €, en garantía de la correcta ejecución de las obras de urbanización (6 % 1.581.282,10 € PC de la Fase 1 -18 % de 1.340.069,58 € PEM-). Será devuelto con la recepción de las obras de urbanización.

– 26.380,20 € (120 % de 21.983,50 €), en garantía de la correcta gestión de residuos de construcción y demolición. Se devolverá a la finalización de los trabajos. A tal fin, se presentará el Informe final de la gestión de residuos y la acreditación documental de la correcta gestión de residuos generados en la obra de acuerdo a los Decretos 112/2012 y 407/2013 del Gobierno Vasco; de modo que el Informe esté verificado por Colegio Oficial o entidad acreditada para dicho cometido, salvo que el informe sea elaborado por entidades acreditadas en materia de suelos contaminados.

– 30.000 €, en garantía del correcto mantenimiento de viales, bienes y servicios públicos dentro y fuera del ámbito, afectados por el desarrollo las obras. Será devuelto con la recepción de las obras de urbanización.

– 77.417,12 €, misma cantidad que la partida presupuesta para jardinería, en garantía del cumplimiento de plantación del arbolado y de restauración ambiental y paisajística. Esa cantidad garantiza, igualmente, la obligatoriedad de suplir el déficit final de árboles en la Actuación Integrada, con la plantación en otra parte del territorio o, en su defecto, con el abono de la indemnización correspondiente, siendo el Ayuntamiento, llegado el periodo/momento de la plantación, quien establecerá los terrenos o emplazamientos para acometer las obligaciones de plantación.

Eginbeharra bete egin dela egiaztatzen denean itzuliko da. Horrela, harrera egunerako ez bada bete zuhaitzak landatzeko eginbeharra (landatutako zuhaitz kopurua eskasa bada, landatzen diren zuhaitzak dena delakoagatik bermealdian hiltzen bada edo zuhaitzak landatzeko garaia egokia ez bada), bermea exekutatu da, eta ez da itzuliko.

2. Baldintza hauek bete beharko dira:

– Lanak ezingo dira hasi harik eta espedientearen datozen entitate publiko eta administrazio sektorialen txostenek ezarritzen dituzten nahitaezko baimenak lortzen diren arte.

– Lanak hasteko data Irungo Udaleko Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra Arloari jakinarazi beharko zaio. Izan ere, lanen jarraipena egiteaz arduratuko da Arloa, eta urbanizazio lanak egiteko udal irizpideak finkatuko ditu, gero lanak hartzeko moduan.

– Irunen urbanizazio lanak egiteko baldintza tekniko orokorrak bete beharko dira, baita enpresa hornitzaileen arauak ere zerbitzuen azpiegiturretan.

Bereziki, hornikuntza eta saneamendu azpiegiturak egiteko, Txingudiko Zerbitzuen irizpideei jarraitu beharko zaie une oro, eta, horrela, 3 m baino beherago dagoen hodi biltzaileak gres beiratzatutakoa izan beharko du. Era berean, kalitatea kontrolatzeko probak egingo dira sare osoan, hala nola barne presioa eta estankotasuna neurtzeko probak, hoditeria garbitzeko eta desinfektatzeko lanak eta kamerekiko ikuskapen lanak.

– Lanek ez dute ukituko Lastaola kalearen bazterrean Mendipe auzora ematen duten zintarri eta areken egungo antolamendua. Errekastoa birbideratzeagatik berrurbanizazio lanean, ordea, ez da bete beharko neurri hori.

– Ezohiko neurrien protokolo bat izango da, lanak egin bitartean ustekaberen batek zirkulazio erreietan eraginik izango balu ere.

– Azpiegitura, obra zibil edo transformazio zentro bat ere ez da kokatuko edo igaroko zuhaitzen azpitik.

– Transformazio zentroa bizitegi eraikinetik ahalik eta urrutien kokatuko da, berdeguneraren batean, lurpean, pantailek babestuta, eta energia elektrikoa hornitzen duen enpresak hornidura baldintzei dagokienez dioenarekin bat etorriko da.

– Lanak hirigunean egingo direnez eta lur mugimendu handiak egin beharko direnez (hondeaketa lanak eta lurrak kanpora eramateko lanak), arreta berezia jarri beharko da bideak garbi mantentzeko.

Irun, 2020ko ekainaren 3a.—Alkatea, eskuordetuta, Hirigintzako teknikaria. (2549)

Ese aval se devolverá una vez comprobado el efectivo cumplimiento de la obligación. Y, si en esa fecha de la recepción no se ha cumplido con la plantación, bien por un déficit en el n.º de árboles plantados, o bien por la muerte, por cualquier causa durante el periodo de garantía, de los árboles plantados, o bien porque no es la época del año propicia para esas labores de plantación, el depósito de garantía del cumplimiento mencionado se hará efectivo y no se devolverá.

2. Condiciones de ejecución de las obras:

– No podrán iniciarse las obras en tanto no cuenten con las autorizaciones preceptivas conforme a los informes emitidos por las entidades públicas y administraciones sectoriales concurrentes que constan en el expediente.

– Debe comunicarse la fecha de inicio de obra al Área de Movilidad, Vía Pública y Obras del Ayuntamiento de Irun, que se encargará de realizar un seguimiento de la obra y marcar los criterios municipales en las obras de urbanización, para la posterior recepción de las mismas.

– El cumplimiento de las Condiciones Técnicas Generales para las obras de urbanización en Irun. Asimismo, en las infraestructuras de los distintos servicios, se deberán cumplir las normas de las empresas suministradoras.

Especialmente, en la ejecución de las infraestructuras de abastecimiento y saneamiento, se deberán seguir en todo momento los criterios de Servicios de Txingudi, así, el material del colector situado a mayor profundidad > 3 m debe ser gres vitrificado. Igualmente, se realizarán en la totalidad de la red pruebas de control de calidad como pruebas de presión interior, estanqueidad, limpieza y desinfección de las tuberías e inspección con cámaras.

– La obra mantendrá intacta la disposición actual de bordillos y cunetas del margen de la c/Lastaola donante al barrio Mendipe, medida a la que no se somete la re-urbanización obligada por el nuevo encauzamiento de la regata.

– Existirá un protocolo de medidas extraordinarias en caso en que se vean afectados carriles de circulación por un incidente imprevisto durante el transcurso de la obra.

– Ninguna infraestructura, obra civil o centro de transformación se situará o discurrirá bajo los árboles.

– Se colocará el centro de transformación (CT) lo más alejado posible del edificio residencial, en zona verde, soterrado y apantallado. Se ajustará a lo señalado por la empresa suministradora de energía eléctrica en sus condiciones de suministro.

– Al tratarse de una obra dentro de un entorno urbano en el que el movimiento de tierras que se debe realizar es importante (excavación y transporte de tierras de fuera a la obra), se deberá tener especial cuidado en mantener limpios los viales.

Irun, a 3 de junio de 2020.—El alcade, p.d., la técnica de Urbanismo. (2549)